


FUNTSEZKO JARDUERAK

Datu guztiak ondo analizatutak ditugunean, zenbait gauza garrantzitsu kontuan hartu beharko ditugu. Lehenik eta behin, merkatuaren barruan ingurune orokorraren, lehiakideen eta kontsumitzaileen analisia egin beharko dugu. Ingurune orokorraren analisisian, merkatua aztertzeke, enpresak inguruko errealitatea ezagutu eta azertu behar du. Hainbat ingurune aztertuko ditugu: Legezko ingurunea, ingurune teknologikoa, ingurune soziala eta ingurune ekonomikoa.

Legezko inguruneari dagokionez, trafikoaren legea errespetatu beharra dago. **Ingurune teknologikoa**, berriz, funtsezkoena gure ideia funtzionatzeko sentsore bat ondo programatzea da. Modu horretan, leku bat kotxea aparkatzeko aske edo okupatuta dagoen jakingo dute bezeroek. Ingurune soziala aztertuta, arlo honetan ez du garrantzi handirik, azken finean kontsumitzaileetan gertatzen diren aldaketak ez dute gure aplikazioa aldatuko, modak, ohiturak... esaterako. Ingurune orokorrarekin bukatzeko, **ingurune ekonomikoa** aztertuko dugu ekonomiaren gorabeherak kontuan hartzen eta herrialdeak zer ekonomia aurreikuspen dituen jakingo dugu.

Lehiakideen analisia egitean, beharrezkoa da lehiakideen ezaugarriak ezagutzea, hau da, beste enpresak dituzten gauza onak kontuan izan beharko ditugu, haien ideia arrakasta izatekotan gu gauza antzeko bat egiteko. Ideiak patentatuak egotekotan beste ideiak desberdin bat pentsatu beharko dugu. Azkenik, **kontsumitzaileen analisia** egingo dugu. Kontsumitzailea merkaturatze-funtzioaren helburu nagusia denez, kontsumitzaileek zer premia nahi dituzten eta ze lehentasun dituzten jakingo dugu. Kasu honetan, kontsumitzaileen lehentasuna kotxea lehen bai lehen aparkatzea da haien beharrak egiteko eta denbora errazteko, horretarako sortu dugu gure aplikazioa.

Kalean dauden aparkaleku bakoitzean ipiniko dugu “smart parking” deitutako sentsore batzuk. Hauek torloju batzuekin torlojututa egongo da errepidera, abiaduraren erreduktore bezalakoak torlojotuta egongo dira. Kotxe bat detektatzean, App-an agertuko den leku libre hori



desagertuko da, bakarrik geratzen. Horrela App-an bakarrik agertuko dira zein leku dauden libreak kolore berdean, begi bistan errazagoa izateko. Kotxea kendu dela sentsore detektatzean berriro agertuko da honako ikurrekin. Sentsore honek 3 motatakoak izango dira kotxe bat dela detektatzeko eta ez beste gauza bat. Lehenengoz distantzia kalkulatu du, gero objektu-presentzia, kontaktu baten beharrik gabe antzematen duten transduktoreak eta baita posizio sentsoreak. Honekin zer kokapena dauka objektu jakin bat zehaztea baimentzen digute.

Amaitzeko sentso termikoa. Kotxeak dakigunez bero asko askatzen dute, orduan hori detektatzean laguntzen du kotxe bat dela jakiteko. Gutxi gorabehera hiru gauza hauek detektatu behar ditu kotxea identifikatzeko errazagoa izateko.

Sentsore horien bidez, aparkamenduetan gertatzen diren edozein mugimenduak zuzenean aplikazioan agertuko dira, orduan denbora erreal batean aparkalekuaren informazioa jasoko dugu. Hala ere aparkaleku horretaraino ibilbide azkarrena erakutsiko du. Aparkatzen duen bitartean ikurra desagertzen bada, hurbil dagoen beste aparkaleku batera eramango dizu. Leku libreak geratzen ez badira hurbilago dagoen parking batera bidaliko dizu.



Sistema hau osatuta dago:

- LOT komunikazio sistema sentsorekin konektatzeko
- Plaza egoeraren bistaratzeko kudeaketa softwarea
- Mobilaren aplikazioa

Bestalde, sistema berezi bat beharko dugu App funtzionamendurako.

